



**Fantasiatzko eta Beldurrezko  
Zinemaren Astea**  
**Semana de Cine  
Fantástico y de Terror**  
**Horror and Fantasy  
Film Festival**

**Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren XXII. Astean  
%9 egin du gora ikusle kopuruak**

Pasa den azaroaren 4ean amaitu zen Donostiako Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren XXII. Astea, ondoko emaitzekin:

- **36.534 ikuslek** gozatu dute Astearen jarduerekin azaroaren 5era arte (pasa den urtean 33.357 izan ziren) eta horrek ia **%9ko igoera suposatzen du**. Proiekzioetara joan diren ikusleen kopurua **13.017** izan da (pasa den urtean 13.508) eta programatutako gainerako jardueretan, hala nola, erakusketak (pasa den iganderarteko datuak, hilak 6, erakusketa ugari irekita jarraitzen baitute), Komiki Jardunaldiak, antzerkia eta musika, parte hartu duten pertsonak **23.517** izan dira (pasa den urtean 19.849).
- Asteak diziplina arteko jarduera desberdinen arteko (zinema, musika, antzerkia, erakusketak, etab.) topagune eta une izatearen aldeko apustua irmo jarraitzen du, Donostia Kultura urtean zehar lantzen ari den ildoari jarraiki. Aurten, Gugan enpresak autogestionatutako Nekrogune sail paraleloak, Astearen izaera parte-hartzailea areagotu du, eta aretoetatik kanpoko giroa zabaltzen ere lagundu du.
- Asteak, bere katalogoa argitaratzeaz gain, bi argitalpen publikatu ditu: *Ven y mira. El cine fantástico y de terror en la zona prohibida* liburua, izeneko zikloarekin bat egin zuena, eta, jada ohitura bihurtu dena, *2000 Maníacos* Valentziako fanzinearekin elkarlanean, Astearen inguruko zenbaki berezia.
- Beste behin ere, KUTXAk Astearekin izan duen lankidetzaz garrantzitsua azpimarratu behar dugu. Aurten, Victoria Eugenia Antzokian haurrentzako proiektatutako filma eta gazteentzako zenbait promozio KUTXAren babesarekin gauzatu dira.
- Euskarak Astea izan duen presentziari dagokionez, Euskararen Udal Patronatua eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin elkarlanean, alde batetik, aipatu bi haur-filmak proiektatu dira, eta bestetik, Victoria Eugenia Antzokian guztira 11 film luze eta lehiaketan parte-hartzaile ziren film labur guztiak (15) jatorrizko bertsoan euskarazko azpigituluekin proiektatu dira. Guztira, **2.443 ikusle** izan dira Astea euskarazko proiektioak ikusi dituztenak, eta pasa den urtean 3.296 izan ziren.